

# José Ignacio Tellechea gogoratu

Gurutz Larrañaga

**E**z da batere erraza, aitor dezadan haseratik, J. Ignacio Tellechearen mailako pertsonen ibilbidea lerro gutxi batzutan laburtzea, hainbesteko lana egin duenaren datu eta alde garrantzizkoenak eta esanguratsuenak ondo aukeratu eta adieraztea.

Hori horrela izanik ere, Oarso aldizkaritik egin zidaten gonbidapena pozik onartu nuen, JW. Ignacio Tellechea maisuari zor diodan guztia zertxobait kitatzeko eta aldizkarian ditudan lagunei nire adiskidetasuna adierazteko

Oarso aldizkari honetan bertan, 1976ko alean, Jose Ignacio Tellecheak artikulu polita idatzi zuen bidea gaitzat hartuta. ("El Camino. Meditación en la autopista) Azpigituluak dioen bezala, bideari buruzko gogoeta zen, bere ohiko gai historikoen artean, artikulu bitxia, berezia.

Hara artikulu hartako pasarte batzuk:

"Bideek ez dute hutsik egiten; beti eramaten gaituzte lekuren batetara eta errorerik gabe, nahiz eta ez izan guk desio dugun lekua. Errorea gurea da, inoiz ez bideena"... "Bidea asmatzea lortu nahi dugun jomugarekin dago erabat lotuta. Helmuga batzuk gertukoak dira, berehalakoak; besteak, urrutikoak; badira azken helmugak ere, bizitzaren ibilbide guztiari zentzua ematen diotenak"... "Bizitza bidea da, proiektua delako, destinoa, esfortzua"....." Bideaz gain, bidaiaria dago: bidea egiteko borondatearekin, bidean sartzeko erabakiarekin, bidean ez galtzeko ardurarekin".

Gogoeta interesgarriak, gizakiaren izaerari, jarrerari eta mundu honetako eginkizunari dagozkionak, bizitzaren zentzuari lotzen zaizkionak.

Tellechea jaunak bidearen nondik-norakoak eta helmugak ondo finkatuak zituen. Bere bizitzaren proiektua gauzatzeko bideak aukeratu zituen. Bere bidea egin zuen, borondatez, erabakiz, esfortzuz, lortu nahi zituen jomugak aurrean zituela.



Bi bide izan ziren nagusi Tellechea jaunaren bizitzan: Elizaren zerbitzua eta gizonaren ezagutza. Lehenengoa apaiz izanez egin zuen eta bigarrena, historia ikertuz eta adieraziz.

Lehenengo bideari ez diot gaur eta hemen aipamenik egingo. Ezagutzaren bidean egin eta eman zuenaz arituko naiz ondorengo lerroetan.

Ezagutzaren bidetik abiatzen denak badaki nahikoa dela zerbait jakitea bere jakintzen mugaz jabetzeko. Horretaz konturatzeak bultzatu zuen ezagutzaren ahaleginean eta ibilbide amaigabe bidea, bere bidea egitera.

Ezagutzaren eremu zabalean historia izan zen aukeratu zuen alorra. Historiari lotutako gaiak azter-

tu, jorratu eta landu zituen batez ere, ikuspegi desberdinetatik landu ere.

Lehenik eta behin **ikerle** izan zen. Benetako bokazioz ikertzen zituen gai historikoak. Makina bat paper, idatzi zahar, liburu eta dokumenturi kendu zion hautsa! XVI. Gizaldiko gaiak zituen gogoko, haietan sakondu zuen batez ere, denboran gertatuagokoak baztertzeke. Mundu zabaleko hainbat artxibategi eta liburutegik bazuten beraren berri. Zenbat ordu eman ote zituen ikerketa-lanean!

Baina bere lana ez zen hor amaitzen, ez zen ikerlea soilik. Ikertzen zuena irakatsi egin zuen, berak ezagututakoa erakutsiz eta, bide batez, ikerle berriak sortzeko hazia ereinez, **Irakasle** izan zen urte askotan, Donostian, Gasteizen, Madrilen, Salamancan. Irakasle egokia.

Ikertutakoa unibertsitatetan eta ikastetxetan irakasteaz gain, idatziz ere zabaldu zuen bere ezagutza zabala. **Idazle** oparoa izan zen. Bibliografia zabala du eta tematika aberatsa. Batetik, artikulugile gisa, aldizkari askotan hartu zuen parte, 150 artikulua inguru idatziz. Artikulu batzuk aldizkari honetan argitaratu zituen, Errenteriaren inguruan idatziz.

Beste autore batzuekin egindako liburutan ere hartu zuen parte, hogeita zortzi liburutan hain zuzen.

Liburuak ere idatzi zituen eta ez gutxi. Hauetako batzuk beste hizkuntza batzuetara itzuliak izan dira. Esan dezadan, bidebatez, Tellechea jaunak gazteleraz idatzi zuela bere obra guztia.

Idatzi zituen berrogeita hamabi liburuetan gai historikoak dira nagusi. Hauetatik batzuk bere izenari oro lotuta gelditu dira: Carranza-ko artzapezpikua (23 liburu), Aita Larramendi (4 tomo), Santa Anako Karidadeko Monjak (8 tomo). Euskal gaiak eta Donostiarekin zerikusia duten gai historikoak ere pisu handia izan zuten bere ikerketan eta idazlanetan.

Euskal gaiei dagokienez, hainbat pertsonaia izan zuen aztergai, hala nola, Unamuno, Loiolako Inazio Deuna, Aita Larramendi, Xabierko Frantzisko, Astarloa, Zuloaga, Francisco de Grandmontagne, Antonio Okendo, Jose Arteché, Katalina Erauso, Bilintx, Aita Donostia, Serapio Mugica, Legazpi, Jose Maria Salaberria, Etxegarai, Telesforo Aranzadi, R. M. Azkue, etab.

Euskal erakundeak eta gertakizunak ere aztertzen ditu bere artikulua eta liburuetan: Batzar Nagusiak, Euskal Foruak, Euskal Ilustrazioa, Azkoitiko Zalduntxoak, Bergarako Seminarioa, Euskal Herriko Adiskideen Elkarte, Korsario gipuzkoarrak Terranovan, etab.

Jose Ignacio Tellecheak, donostiarra izanik, ordu asko eskaini zion bere hiriaren historiari, bertako gertakizun historikoei, bere herrikide ezagunen inguruko pasarte eta gertaerei. Honen lekuko ditugu, batetik, "Donostiari buruzko ikerlan historikoen buletina",

berak zuzentzen zuena eta 1967tik aurrera, urtero, ale bat argitaratu duena eta, bestetik, "Donostia Gaiak" liburu-bilduma, Donostiari lotutako hainbat gai biltzen dituen, pasarteak, pertsonaiak, erakundeak,.....

Bere bibliografia aberats eta oparoaz gain, bada azpimarratzeko zerbait. Idazle ona zen. Erraz ulertzeko moduan idazten zuen. Bazekien gauzak kontatzen, modu sentzilloan eta ederrean, irakurketa ugariak atzean dituztenak soilik kontu dezaketen bezala. Bazekien kontakizunaren erakargarritasuna eta historiaren errigorea uztartzen. Hortxe dago, besteak beste, historiari buruzko idazle baten lorpena. Bestalde, helburu hori lortzeko baliagarri zitzaion berak zuen formazioa eta kultura zabala bezain aberatsa, bertakoa zein unibertsala.

Ikerle, irakasle, idazle, **hizlari** ere izan zen Tellechea jaunak, liburuak aurkeztuz, kongresu eta ihardunaldietan parte hartuz.

Ez dakit aukeratu zuen bidearekin asmatu zuen, bere bizitzaren ibilbide guztia-ri zentzia eman zion eta zenbateraino lagundu zion bere helburuak lortzen. Argi dagoena da hartutako bideak fruitu ugari eta onak eman dituela ezagutzaren mundu zabalean, batez ere, historiaren ikerketan eta ezagutzan.

Euskal Herriak eta Euskal Kulturak asko zor dio Tellechea jaunari bere lanagatik, euskal gaien ikerketan eta zabalpenean egin duen ahalegin zintzo eta haundiagatik.

Donostia ere zorretan dago berarekin. Tellechea jaunaren ikerketa eta argitalpenen ondoren, askoz gehiago ezagutzen dugu Donostiako historia, Donostiaren izaera, lehena eta etorkizuna.

Errenteriak eta Oarsoaldeak ere, bere neurrian, zerbait irabazi du Tellechea jaunaren lanarekin, bere artikuluekin.

Liburuek gizonen ospea iraun arazten dute. Hauek desagertu egiten dira, haiek iraun egiten dute. Jose Ignacio Tellecheak bere idatzien bidez irauten du eta iraungo du etorkizunean. ■

